



KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko urtarrila

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak
2. Afiliazioa
3. Langabezia erregistratua
4. Inflazioa
5. Inguruneke aurreikuspenak
6. Ekonomia sentimendua

Eranskina

1. EAEko ekonomia %1,9 haziko da 2020an.

Enplegua %1,2 areagotuko da aurten eta 11.500 lanpostu garbi inguru sortuko dira.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioak balantze positiboa izan zuen 2019an.

Afiliatuen kopurua oso hurbil dago 2008ko uztaillean lortu zen balio gorenetik.

3. Urte amaieran langabezia erregistratuak bere jaitziera leundu zuen.

Gazteen langabezia salbuespena da jaitziera orokorrean.

4. Kontsumoko prezioak %0,8 igo ziren azaroan.

Elikagaien eta erregaien garestitzeak azaltzen du gorakada hori.

5. 2020rako hazkunde aurreikuspenen bilakaera.

AEBek ia ez dute aldaketarik izan, baina hazkunde txikiagoa espero da orain Eurogunerako.

6. Euroguneak zertxobait hobetu du bere sentimendu ekonomikoa.

Bost herrialde nagusien artetik, Erresuma Batuak bakarrik eskaintzen du ezkortasun handiko irudia.



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %1,9 haziko da 2020an

BPG-A

Urte arteko aldakuntza tasa

BARNE PRODUKTU GORDINA 2020

+ %1,9




Koiunturako informazio berriena kontuan hartu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren 2019-2020 aldirako taula makroekonomikoa eguneratu du. Berrikuspen horren arabera, 2019rako %2,2ko aurreikuspenari eutsi zaio, eta 2020rako, berriz, hazkunde tasa hamarren bat jaitsi da, %1,9raino. Azken kontsumoak beheranzko joera txiki bat izango du, geroratutako eskariaren efektuaren gainbeherak eta familien aurrezki tasaren gorakadak

baldintzatuta. Orobat, inbertsioa azkarrago haziko da, neurri batean, ekoizpen ahalmenaren erabilera handiari eta finantzaketa baldintza onuragarriari esker. Horrek guztiak barne eskariak hazkundearen eragile nagusi izaten jarraitzea eta BPGari bi puntu ekartzea ekarriko du. Kanpo sektoreak, berriz, hamarren bat kenduko dio jarduera ekonomikoari. Nazioarteko testuinguruaren hedapen txikiagoak azaltzen du uzkurdura hori.


AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Intentsitate galerak sektore nagusi guztiei eragingo die, industriari izan ezik, 2020an 2019an baino portaera dinamikoagoa izango baitu. Hala ere, hazkundeek garrantzitsuak izaten jarraituko dute.

Ekoizpen erritmo txikiagoak enplegu garbiaren sorreran izango du eragina, 2019an %1,6 izate-tik aurtetik %1,2 izatera igaroko baita, eta itxurazko produktibitatearen irabazia puntu erdian gainera egongo da. Tasa horiek bat datoz aurreko buletinean argitaratutakoekin eta adierazten dute 2019an lanaldi osoko 15.500 lanpostu inguru eta 2020an 11.500 enplegu inguru sortuko direla. Langabezia tasa zertxobait bakarrik murriztuko da, enplegu eskatzaile berriak etorriko direlako, lana aurkitzeko aukera gehiegia erakarrita.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak balantze positiboa izan zuen 2019an

Gizarte Segurantzako afiliazioa 980.600 pertsonara iritsi zen 2019ko abenduan, 2008ko uztailako maximotik (982.900 pertsona) oso gertu dagoela. Hileko horretako urte arteko aldakuntza tasa %1,9koa izan zen eta, beraz, 2015etik aurrera erregistratzen den %2,0 inguruko erritmoa luzatu da. Abenduan afiliazioaren gorakada handia izan zen bi

generoetan, baina bereziki emakumeen artean. Zehatzago adieraztia, emakumeen afiliazioaren urtetik urterako igoera %2,9koa izan zen eta gizonena, berriz, %1,0koa. Horrenbestez, gaur egun Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonen %47,8 emakumeak dira, eta ehuneko hori 2008ko uztailan zegoen banaketa baino zazpi puntu handiagoa da.


GIZARTE SEGURANTZA AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

ABENDUKO AFILIAZIOA


+%1,9



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Urteko batez bestekoan, 2019ko balantzea oso positiboa da, kotizatzaileen kopurua ia 19.000 pertsonatan handitu baita. Enpleguari egindako ekarpenagatik nabarmentzen diren jarduera ekonomikoak osasun arlokoak izan dira, 7.000 pertsona berri baino gehiago kotizatzen ari baitira. Hala ere, gogoratu behar da talde horretan dau-

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



dela zaintzaile ez-profesionalak, eta horien kotizazioa Espainiako gobernuak hartu zuela bere gain apirilean. Adierazgarriak dira, halaber, hezkuntzan, ostalaritzan, eraikuntzan, jarduera profesionaletan eta garraioan izandako igoerak, guztiak ere 2018an zituztenak baino gutxienez 1.000 kotizatzaile gehiagorekin.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK. URTEKO BATEZ BESTEKOAK.

	2018	2019	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	947.996	966.813	18.817
Industria manufakturagileak	175.512	176.398	886
Merkataritza	138.383	138.294	-89
Osasun arloko jarduerak	94.526	101.829	7.303
Hezkuntza	69.343	72.109	2.766
Ostalaritza	64.724	66.542	1.818
Administrazio jarduerak	66.268	66.414	146
Eraikuntza	55.292	56.965	1.673
Lanbide jarduerak	55.199	56.574	1.375
Administrazio publikoa	47.490	48.258	768
Garraioa	41.318	42.439	1.121
Etxeko langileak	30.727	29.965	-762
Bestelako zerbitzuak	28.081	27.976	-105
Informazioa eta komunikazioa	22.292	23.152	860
Finantza jarduerak	18.045	18.002	-43
Jarduera artistikoak	15.675	16.387	712
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.744	12.817	225
Or horniketa	5.981	6.206	225
Higiezin jarduerak	3.970	4.101	131
Energia horniketa	1.803	1.763	-40
Erauzketa industriak	570	565	-5
Lurraldez kanpoko erakundeak	55	59	4

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.



LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Urte amaieran langabezia erregistratuak bere jaitsiera leundu zuen

Lanbideko bulegoek erregistratutako datuen arabera, aurreko urteetan bezala, langabeziak behera egiten jarraitu zuen 2019an ere, baina erritmo apalagoan egin zuen. Hain zuzen ere, 2019ko langabeziaren jaitsiera %6,5ekoa izan zen, 2014tik izandako tasarik apalena baita. Langabeziaren beherakadaren erritmoa ekainean moteldu egin zen, hilabete horretan urte arteko aldakuntza tasa $-\%7,6$ izan baitzen. Hortik aurrera,


leundu egin zen, abenduan $-\%4,6$ jaso arte. Guztira, urte amaieran 114.000 pertsona zeuden langabe gisa erregistratuta enplegu bulegoetan. Oro har, langabeziaren beherakada bizkorragoa izan zen gizonen artean, haien urteko batez besteko tasa ($-\%6,8$) emakumeena baino altuagoa izan baitzen ($-\%6,3$), nahiz eta abenduan bilakaera hori irauli zen ($-\%3,5$ eta $-\%5,5$ jaitsi ziren, hurrenez hurren).

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. ABENDUA

$-\%4,6$




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Beste behin ere, joera on orokortuaren salbuespena biztanle gazteenen eskutik etorri zen. Izan ere, haien kolektiboa izan zen urte amaieran aldakuntza tasa positiboak (%5,9) izan zituen bakarra. Bestalde, atzerritarren kopuruak ere beherako joera leundu zuen, nabarmen, eta, ondorioz, abenduko urtetik urterako aldakuntza (-%3,4) bertoko nazionalitatea dutenena baino txikiagoa izan zen. Azkenean, sektore guztiek aurreko urte-

LANGABEZIA . ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



etan baino langabeziaren murrizketa apalagoa aurkeztu zuten. Izan ere, industriak eta zerbitzu-ek jaitziera erritmoa gutxitu zuten abenduan, hurrenez hurren -%5,0 eta -%4,1. Jaitziera horiek ez ziren aurreko hilabeteetakoak bezain handiak izan. Eraikuntzak, berriz, -%8,4ko beherakada izan zuen, baina urteko lehen hiruhilekoan jaitziera hori bikoizten zuten balioetara ere iritsi zen.

LANGABEAK


	2018ko abendua	2019ko abendua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	119.674	114.162	-5.512
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	19.792	18.722	-1.070
Bizkaia	68.204	65.117	-3.087
Gipuzkoa	31.678	30.323	-1.355
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	53.021	51.168	-1.853
Emakumeak	66.653	62.994	-3.659
25 urtetik beherakoak	7.439	7.879	440
25 urte baino gehiago dutenak	112.235	106.283	-5.952
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.724	2.509	-215
Industria	15.073	14.326	-747
Eraikuntza	9.060	8.295	-765
Zerbitzuak	78.655	75.457	-3.198
Lehenago lan egin dutenak	105.512	100.587	-4.925
Lehenago lan egin ez dutenak	14.162	13.575	-587
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarra	19.090	18.435	-655

Iturria: SEPE.

Kontsumoko prezioak %0,8 igo ziren azaroan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioa %0,8an kokatu zen azaroan, argitaratu den azken hilekoan, urriko prezioen igoera baino hiru hamarren gorago, eta joan den apiriletik KPIaren urteko bilakaerak izan duen lehen gorakada izan da. Hilabete horretan erregistratutako %1,7tik kontsumoko prezioek apaltzeko joera nabarmena erregistratu zuten, irailean eta urrian hazkunde tasa %0,5era iritsi arte. Orain, berriz, aipatutako tasara igo da.


KPI-REN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2017	2018	Azaroa 2019	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	0,8	0,8
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	1,2	1,0
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	1,0	0,2
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,5	0,1
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,7	0,7
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	-1,0	-0,2
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	2,9	0,2
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	-3,6	-0,4


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Azaroko urte arteko tasaren igoeraren erantzule nagusiak bi talde izan ziren: garraioa eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak. Lehenengoak puntu bat eta lau hamarren igo zuen bere aldakuntza tasa, %2,2ra iritsi arte, erregaien prezioek hilabete horretan izan zuten egonkortasunaren ondorioz, 2018ko azaroan izandako beherakadaren aldean. Bestalde, elikaduraren taldeak hiru hamarren igo du bere urte arteko tasa, frutek, arrainak eta itsaskiak prezioak igo dituztelako.

Era berean, aisialdi eta kultura taldeak %0,4raino egin zuen aurrera, pakete turistikoaren prezioen bilakaeraren ondorioz. Aitzitik, talde horien hazkundeak oso urrun daude etxebizitza taldeak erregistratu zituen balio negatibo nabarmenetatik (-%4,0), argindarraren eta berokuntzarako gasolioaren merkatzea dela eta. Edari alkoholduen eta tabakoaren taldeak ere behera eraman du bere urte arteko tasa (-%0,3).

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte ateko aldakuntza tasa. 2019ko azaroa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	0,8	0,4	1,0
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,9	1,7	1,5
Edari alkoholduenak eta tabakoa	-0,3	0,4	3,4
Jantziak eta oinetakoak	0,9	1,0	0,7
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-4,0	-4,1	0,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,3	0,8	0,5
Osasuna	1,1	0,6	0,7
Garraioa	2,2	0,4	0,0
Komunikazioak	0,8	0,8	-1,3
Aisia eta kultura	0,4	0,0	1,6
Hezkuntza	1,4	0,9	1,0
Jatetxeak eta hotelak	1,9	2,0	1,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,3	1,4	1,6


Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.



INGURUNERAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK


2020rako hazkunde aurreikuspenen bilakaera

AEB-ETARAKO AURREIKUSPENA
2020ko hazkunda




2019a ziurgabetasun handiko urtea izan da, eta hurrengo dezelerazio baten beldurra oso presente egon da. Hala eta guztiz ere, adituek egindako berrikuspenek ez dute berdin eragin herrialde guztietan. Izan ere, Consensus Forecastsek argitaratu duen AEBen 2020ko hazkunde aurreikuspena ia ez da ezer aldatu 2018ko urritik gaur arte. Hain zuzen ere, hileko horretan %1,8ko haz-

EUROGUNERAKO AURREIKUSPENA
2020ko hazkunda




kunda espero zen eta hamalau hilabete geroago tasa bera aurreikusten da. Iturri horrek berak %1,4ko hazkunda aurreikusi zuen Eurogunerako duela urtebete baino pixka bat gehiago, eta 2019ko urrian %0,9ra murriztu zen espero zuen tasa, baina azaroan eta abenduan hamarren bat hobetu da.

ALEMANIARAKO AURREIKUSPENA
2020ko hazkunda




FRANTZIAKO AURREIKUSPENA
2020ko hazkunda



Beraz, urtebete baino gehixeagoko epean Europa-ko ekonomiarako berrikuspena lau hamarrenekoa izan da. Kopuru hori da gehien errepikatzen dena eremuko herrialde nagusiak aztertzen direnean. Hala ere, Alemaniaren kasuan zuzenketa handiagoa izan da. Izan ere, 2018ko urrian espero zen aurten Alemaniako ekonomia %1,6 haziko zela, baina gaur egun Consensus enpresaren panelak %0,9an kokatzen du espero den igoera, azaroan argitaratutako datua hamarren bat gorantz berrikusi ondoren. Frantziaren kasua antzekoa da, bai-


na zuzenketa ez da hain handia. Lehen aurreikuspenak %1,6 ere ematen zion herrialde horri eta abenduan goranzko berrikuspen txiki bat egin ondoren, orain %1,2 aurreikusten da. Erresuma Batuko zifrak Frantziako tasen oso antzekoak dira (%1,5etik %1,1era igaro da), nahiz eta Europar Batasunetik irteteak tentsio handia ekarri duen. Paragrafo honetan aipatutako bi herrialdeek bezala, Erresuma Batuko ekonomiari ere goranzko berrikuspen txiki bat esleitu zaio, kasu honetan urriarekin alderatuta.

ITALIARAKO AURREIKUSPENAK 2020rako hazkundea




Consensus Forecastsek Espainiako egin duen aurreikuspena Euroguneko beste herrialde garrantzitsuena baino handiagoa zen jadanik hasieran, %2,0ko tasa espero baitzuen. Erakunde horren azken buletinean, zifra hori lau hamarren murriztu zen, %1,6ra arte, baina oraindik ez da goranzko berrikuspenik egin. Italiarentzat ere ez da berrikuspen positiborik egin eta espero zen hazkunde tasa %0,9koa izatetik %0,4koa izatera igaro da azken sei hilabeteetan.

ERRESUMA BATURAKO AURREIKUSPENAK 2020ko hazkundea



ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK 2020rako hazkundea




Iturria: Consensus Forecast.

Euroguneak zertxobait hobetu du bere sentimendu ekonomikoa

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEAK

ABENDUKO DATUA


101,5




Europako sentimendu ekonomikoaren abenduko datuek erakusten dutenez, baikortasunak hobera egin du euroaren eremu osoan, nahiz eta oraindik bere batez besteko historikotik gertu dagoen. Hain zuzen ere, 101,5 balioan kokatu zen indizea abenduan, hobekuntzaren bigarren hilabetea kateatuz. Ahulezia nagusia industrian hautematen da, bere batez bestekoa baino balio txikiagoan baitago. Aitzitik, eraikuntzak eta txikizkako merkataritzak bizitasuneko irudia eskaintzen dute. Alemanian, sentimendu

ekonomikoak atzean utzi zituen aurreko hiru hilabeteetan jaso zituen 100etik beherako balioak eta abenduan batez besteko balioa berreskuratu zuen. Industriak kalte egiten dio sentimendu globalari. Frantzia, berriz, egoera hobe da (103,0), baina beheranzko joera du. Zerbitzuek eta eraikuntzak herrialdearen aurpegirik onena eskaintzen dute, baina kontsumitzailearen konfiantza pixkanaka hondatzen ari da, txikizkako merkataritza ahultzen ez bada ere.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Eurogunetik kanpo, ezkortasun handiko egoeran murgilduta jarraitzen du Erresuma Batuak, Europako Batasunetik irteteko prozesuan akordio bat lortzeko zailtasunek baldintzatuta. Herrialde hartako ekoizpen sektore guztiek erakusten dituzte aurreikuspen negatibo horiek eta balio nabarmen txikiak dituzte. Hala eta guztiz ere, kontsumitzaileen konfiantza ez dator bat ezkortasun horrekin eta hobekuntza txiki bat izan du aurreko lau hilabeteekin alderatuta.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ERRESUMA BATUA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



Pixkanaka baikortasuna berreskuratzen ari diren herrialdeekin bat egin du Italiak, eta 101,6ko datua jaso zuen abenduan, euroaren eremuko batez bestekoaren ez oso bestelakoa. Kontsumitzaileen artean oraindik mesfidantza dago, baina ez du eragozten txikizkako merkataritzak balio oso handiak erregistratzea. Eraikuntzak eta zerbitzuek konpentsatzen dute industriak erregistratzen duen datu txarra.

Espainiak ezustea eman zuen bere sentimendua nabarmen hobetuz abenduan, beraren indizea 103,2an kokatzeraino, nahiz eta urteko lehen hiru hiruhilekoetan izandako balioetatik urrun dagoen oraindik. Industrian eta txikizkako merkataritzan izandako hobekuntzak azaltzen du susperraldi hori. Hala eta guztiz ere, kontsumitzaileen konfiantzak atzera egin du eta eraikuntza zein zerbitzuak beren batez besteko historikotik oso hurbil daude.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europako Batzordea.

ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,8	3,0	3,0	2,6	2,2	2,2	2,1
Barneko azken kontsumoa	2,9	2,5	2,4	2,2	2,1	1,9	2,0
Familien kontsumoa	3,1	2,7	2,6	2,5	2,2	1,9	1,8
Administrazioaren kontsumoa	2,1	1,6	1,7	1,3	2,0	2,0	2,4
Kapital eraketa gordina	3,1	4,7	4,8	4,6	4,0	2,5	2,2
Barne eskaria	2,9	3,0	3,0	2,8	2,6	2,0	2,0
Esportazioak	4,8	3,0	2,1	0,7	-1,4	2,8	-0,9
Inportazioak	5,0	3,0	2,2	1,1	-0,8	2,6	-1,0
Lehen arloa	10,1	7,9	4,8	15,9	4,6	-0,1	-1,8
Industria	2,5	2,5	2,5	0,3	0,6	0,8	0,7
Eraikuntza	1,6	4,1	5,4	6,2	4,8	2,9	2,9
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,5	2,7	2,6	2,6	2,7
Balio erantsi gordina	2,8	2,8	2,7	2,4	2,2	2,2	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	4,9	5,1	3,8	2,2	1,9	2,0
Enplegua	2,1	1,6	2,7	2,3	1,8	1,7	1,6

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2019		2020			2019	2020
	IV	I	II	III	IV		
BPG	2,1	2,0	1,9	1,8	1,8	2,2	1,9
Barneko azken kontsumoa	2,0	1,9	1,8	1,7	1,7	2,0	1,8
Familien kontsumoa	1,9	1,9	1,8	1,7	1,7	2,0	1,8
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,0	1,8	1,8	1,9	2,1	1,9
Kapital eraketa gordina	2,4	2,5	2,5	2,8	2,9	2,8	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,2	2,1	2,1	2,0	2,1	2,3	2,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,1	-0,2	-0,2	-0,3	-0,1	-0,2
Lehen arloa	-0,5	-2,0	-4,2	-3,4	-4,7	0,5	-3,6
Industria	0,9	0,7	0,9	1,3	1,5	0,7	1,1
Eraikuntza	2,8	2,8	2,6	2,4	2,4	3,4	2,5
Zerbitzuak	2,6	2,5	2,3	2,1	2,1	2,6	2,3
Balio erantsi gordina	2,1	2,1	1,9	1,8	1,9	2,2	1,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,0	1,7	1,8	1,7	1,7	2,0	1,7
Enplegua	1,4	1,3	1,2	1,1	1,1	1,6	1,2

EAE-KO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020		2019	2020
Confebask (19-12)	2,2	1,9	Funcas (19-06)	2,2	—
Laboral Kutxa (19-12)	2,2	1,8	CEPREDE (19-12)	1,9	1,6
Hispalink (BPGaren ald.) (19-07)	2,2	2,0	BBVA (19-10)	1,7	1,7

ESTADÍSTICA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,9	2,4	2,2	2,1	2,2	2,0	1,9
Kontsumo pribatua	3,0	1,8	1,6	1,2	1,1	0,8	1,4
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	1,9	2,2	2,3	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	5,3	5,3	3,5	4,7	0,9	2,4
- Aktibo finko materialak	7,0	6,2	6,3	4,0	5,6	0,7	2,3
- Eraikuntzan	5,9	6,6	6,1	5,7	4,0	2,1	0,9
- Ekipamendu ondasunetan	8,5	5,7	6,8	1,4	7,9	-1,8	3,9
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,3	1,1	0,7	1,0	0,4	2,0	3,3
Nazio eskaria (ekarpena)	3,0	2,6	2,5	2,0	2,0	1,2	1,8
Esportazioak	5,6	2,2	1,6	0,1	0,4	2,1	3,0
Inportazioak	6,6	3,3	2,5	-0,3	-0,1	-0,2	3,1

BPG-AREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020		2019	2020
AFI	1,9	1,7	IEE	1,9	1,5
Axesor	2,0	1,6	Intermoney	1,9	1,6
BBVA	1,9	1,6	Repsol	1,8	1,5
Bankia	1,9	1,5	Santander	2,0	1,7
CaixaBank	1,9	1,5	Solchaga Recio & asociados	2,0	1,6
Cámara de Comercio España	2,0	1,7	Batez bestekoa	2,0	1,6
Cemex	2,0	1,6	Gobernua(2019-10)	2,1	1,8
CEEM-URJC	2,0	1,6	Espainiako Bankua (2019-12)	2,0	1,7
CEPREDE-UAM	2,0	1,7	Europako Batzordea (19-11)	1,9	1,5
CEOE	2,0	1,6	NDF (2019-10)	2,2	1,8
FUNCAS	1,9	1,5	ELGE (2019-11)	2,0	1,6
ICAE-UCM	1,9	1,5	Consensus Forecast (2019-12)	2,0	1,6

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast.
AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

ESTADÍSTICA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPG-AREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2017	2018	2018		2019		
			III	IV	I	II	III
AEB	2,4	2,9	3,1	2,5	2,7	2,3	2,1
Txina	6,9	6,6	6,5	6,4	6,4	6,2	6,0
Japonia	1,9	0,8	-0,3	-0,3	0,8	0,8	1,9
Kanada	3,0	1,9	2,0	1,8	1,5	1,9	1,7
Europar Batasuna	2,6	2,0	1,8	1,5	1,7	1,4	1,3
Eurogunea	2,5	1,9	1,6	1,2	1,4	1,2	1,2
Alemania	2,5	1,5	1,1	0,6	1,0	0,3	0,5
Frantzia	2,3	1,7	1,5	1,2	1,3	1,4	1,4
Erresuma Batua	1,9	1,4	1,6	1,4	2,0	1,2	1,1
Italia	1,7	0,8	0,4	-0,1	0,0	0,1	0,3
Herbehereak	2,9	2,6	2,3	2,1	1,9	1,6	1,8

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2019KO ABENDUA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AEB	2,3	1,8	1,8	2,0	3,7	3,6
Txina	1,0	0,3	0,6	0,6	2,4	2,4
Japonia	1,7	1,7	2,0	1,9	5,7	5,7
Kanada	1,3	1,2	1,4	1,4	—	—
Europar Batasuna	1,2	1,0	1,2	1,2	7,6	7,5
Eurogunea	0,5	0,9	1,4	1,4	5,0	5,1
Alemania	1,3	1,2	1,2	1,2	8,4	8,2
Frantzia	1,3	1,1	1,8	1,8	3,9	4,1
Erresuma Batua	0,2	0,4	0,7	0,9	10,0	9,9
Italia	2,0	1,6	0,7	1,0	—	—
Herbehereak	1,7	1,4	2,6	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.